

CONCURSO LITERARIO JUVENIL DE PAMPLONA 2022

NARRATIVA EUSKERA 17-18 AÑOS

SEGUNDO PREMIO

Zoriontasuna hori zen

Lorea Guembe Otxotorena

Pasabide hauetatik barrena noala iritsi nintzen egunaz oroitzen naiz. Zenbat egun pasatu ote dira? Aste bat? 12 egun? Bi aste beharbada? Berdin du. Oraindik egun horretako zoriontasuna guztiz fresko daukat, memorian zizelkatu berria balego bezala. Azkenik soro nazkagarri horretatik aldentzearen poztasuna. Zenbat aldiz amestu dudan momentu hau!

Soroan, gau eta egun ematen nuen zomorroz eta animaliaz inguratua. Ondoko fabrikako zikinkeriaz beterik. Udaberri bero honetako egun horietan langileak haien denbora librean gure sorora etorri ohi ziren. Arratsaldean, haurrak. Egundorietan haien solasaldiek beste errealitate batzuetara eramaten ninduten. Soro horretatik urrun, beste bizimodu bat imajinatu egiten nuen.

Egun batean, eguzkitan lasai asko nengoela, emakume eta neskato bat hurbildu zitzaizkidan.

—Begira ama, zer lore polita! —esan zuen neskak.

Bihotzak salto txiki bat eman zidan. Ikusi ninduen! Polita iruditzen nintzaion! Orduan neskak eskua luzatu eta lurretik banandu ninduen. Azkenean! Hainbeste amestutako askatasuna! Lurrari lotuta mantentzen ninduten kateak apurtuak ziren azkenik!

Laster bere etxera eraman, amak edalontzi bat urez bete eta haren gelan utzi ninduen. Logela polita zen, jostailuz betea baina garbi-garbia. Lurrin gozo bat nabaritzen zen inguruan. Izpilikua? Ez, arrosa beharbada.

Baina gehien harritu ninduen nire aurrean nuen beste lorea izan zela oroitzen naiz. Nire edalontzia bezalako ontzi batean zegoela ikusi nuen, baino zein arraroa, marko batez inguratua! Nik ere hori nahi nuen! Harekin hitz egiten saiatu nintzen, baino ezer ez, kasurik ez. A zer harroputza!

CONCURSO LITERARIO JUVENIL DE PAMPLONA

2022

Egunak aurrera egin zuen eta neskatoak arratsalde osoa eman zuen logelan jolasean. Zer gustura nengoen! Aldiro etortzen zen niregana eta denbora luze ematen zuen niri begira. Marrazki bat eta guzti egin zidan. Azkenean lur zikin horretatik hain urrun! Zizare eta inurrietaz libratzea lortu nuen! Zomorro nazkagarri horiek beti inguruan, beti hizketan, molestatzen.

Hurrengo egunetan ezin zoriontsuagoa izan nintzen, haurrak miretsi egiten ninduen eta lagun bat ekartzean harrotasunez erakutsi eta esan zion:

—Kontuz! Ez ezazu bota, apurtuko duzu.

Zaindu eta maite egiten ninduen eta ni hainbeste amestutako errealitate horretan sentitzen nintzen. Dena den, aurreko loreak kezkatu egiten ninduen, nahiz eta zuzen begiratu oraindik ez zidan txintik esaten, eta geroz eta kolore zurbilagoa ikusten nion. Gaixoa, hari neskak ez zion kasurik egiten. Beharbada nik protagonismoa kendu eta horregatik ez zion kasurik egingo. Bai! Hori da! Pentsatu nuen.

Egunek aurrera egin ahala neskatxak gero eta kasu gutxiago egiten zidan. Gutxitan begiratzen ninduen eta jada ez zen niregana hurbiltzen. Bakardade hura nire aldarrean eragina izaten hasia zen. Sarritan aurkitzen nuen nire burua aire zabalarekin amesten, soroko lagunak faltan botatzen. Bitartean nire kideari hostoak lehortzen ari zitzaizkion, zurtoina tolesten hasia zen eta dagoeneko ez zuen iritsi nintzen eguneko kolorearen distira. Zeinen itsusia zegoen! Etengabe hitz egiten nion, erantzun bat jaso nahian.

—Aizu! Ez dut ulertzen zer gertatzen zaizun. Ezin gaitezke lagunak izan? Gutxienez orduak hain luzeak ez izateko! —baina ez nuen erantzunik jasotzen. Beti bezala, keinu txiki bat besterik ez, ezpainak mugitzen arituko balitz bezala.

Arratsalde horietako batean konturatu nintzen, agian niri ere gauza bera gertatzen ari zitzaidan! Hainbeste denbora etxetik urrun! Baliteke dagoeneko lehenengo egunean

CONCURSO LITERARIO JUVENIL DE PAMPLONA

2022

bezain polit ez egotea! Beste loreari galdetu nion.

—Zer nolako itxura daukat? Lehortzen ari al naiz? —baina zirkinik ez—. Mesedez, erantzun iezadazu!

Negarrez hasi nintzen. Ederragoa banintz neskak ziur begiratuko ninduela. Petaloak paretetako koadroetako loreak bezain ederrak banitu... Hori kolore hau beharrea arrosa eder bat banu... Guztia ezberdina izango litzateke! Neskak maite egingo ninduke.

Zer naiz ni inork begiratzen ez banau? Ba ote al naiz zerbait nire baitan? Gainontzekoen begiradarekiko independentea al naiz? Edo bere begirada behar al dut existitzeko? Beharbada hark ematen dio zentzua nire existentziari; ikusia, mirestua eta maitatua banaiz, orduan existitzen naizela esan ahalko dut. Bestela nire existentzia hutsaren hurrengoa izango litzateke, ezta?

Hori duela egun batzuk gertatu zen, baina atzo amaieraren hasiera izan zen. Haurra eskolara joateko prestatzen presaka zebilen eta presak zirela eta estropezu egin eta erori egin zen. Kolpea nik lehortutako lorea zela uste nuenaren kontra izan zen eta neskak negarrari ekin zion. Horiek ziren oihuak horiek! Baino nik ia ez nuen ezer entzuten, zuzen-zuzen kristal zatiei begira geratu nintzen. Okertuta nengoen! Ez zegoen beste lorerik! Ispilu bat zen! Denbora osoan zehar nire buruari begira egona nintzen. Ni nintzen gela honetan bakarra eta ni nintzen gainbeheran nengoena. Errealitatearen kolpe horrek lur jota utzi ninduen.

Baina arratsaldean bisita batek nire arazoez ahaztea eragin zuen. Beste ume bat! Antza zenez neskatoak lagun bat ekarri zuen. Hau da nire aukera, pentsatu nuen. Umea liluratu behar dut. Eta ahal nuen bezainbeste tentetu nintzen, eta ahal nuen bezainbeste distiratzten saiatu nintzen. Eta ez dakit horregatik izan zen, baino bere atentzioa lortu nuen! Umeak zuzen-zuzen begiratu ninduen eta esan zuen:

CONCURSO LITERARIO JUVENIL DE PAMPLONA

2022

—Eta hor duzun lore hori?

—A! Ezer ez, pasa den egunean hartutako lore bat. Dagoeneko itsusia dago, bota beharko dut —erantzun zion neskak.

Hitz horiek labankadak izango balira bezala barruraino sartu zitzaizkidan, inoiz sentitu gabeko mina eman zidaten. Baina umea hurbildu zitzaidanean, azkar berreskuratu nuen neurritasuna.

—Orduan har dezaket, ezta? —galdetu zuen.

—Egin ezazu nahi duzuna

Eta umeak haren eskuen artean hartu ninduen. A ze gozotasuna haren eskutxoena! Hura bai alaitasuna! Azkenean lortu nuen, norbaitek ikusten ninduen. Norbaitek ukitzen ninduen. Hau zen nik amesten nuen bizitza. Begiratua izatea, miretsia izatea.

Baina bat-batean irribarre maltzur bat ahoan zuela petaloetatik tiraka hasi zitzaidan. Banan-banan. Guztiak kenduz. Hura mina! Kentzen zidan petalo bakoitzetik bizitzak ihes egiten zidala iruditzen zitzaidan. Azkenean, barrezka, mahai gainean utzi ninduen, makiltxo soil bat baizik ez nintzela. Zer naiz orain? Zer naiz nintzen guztia kendu badidate? Hainbeste desiratzen nuen atentzioak azkenean hondamendira eraman ninduen.

Gaur eguraldi liluragarri batekin hasi dugu eguna, baino nire barruan jada ez dago itxaropenik. Goizean neskatoaren aita hura esnatzera sartu denean albo batera begiratu eta hor ikusi nau: apurtua, lehorra, itsusia. Ordu batzuk geroago berriz sartu da logelan, esku batean plastikozko lore-sorta eder bat zuela. Lore-sorta pote baten barruan utzi eta ni hartu nau.

Orain pasillotik noa, soroarekin amesten. Zeinen ongi nengoen erroak lurrari lotuta. Izar azpian edo eguzkiaren berotasunean. Aire zabalean, errealitatean. Zeinen ongi nengoen lagunekin gau eta egun. Zeinen ongi nengoen, eta ez nintzen konturatzen. Azkenean, zaborrontziko tapa itxi egin da.